

# Politika

EiTBk kudeaketa aurreratuarekiko duen konpromisoa aitortu du, Kontratu Programan eta EiTbren esparru estrategikoan jasotzen diren gobernamendu-printzipioei jarraituz.

Kudeaketa aurreratuaren ondorioz, bezeroa eta biztanleria gure kudeaketa-ereduaren erdigunean jarri, alderdi interesdunengan arreta jarri eta kudeaketa aurreratuko estandarrak erabili behar ditugu.

Ikuspegi horren arabera, EiTBk kalitatearen, ingurumenaren eta arriskuen eta osasunaren prebentzioaren inguruko nazioarteko arauekin loturiko kudeaketa-sistemak hartzen ditu bere gain. Era berean, enpresak eredu aurreratuak aplikatzen ditu gobernamendu-sistema eta erantzukizun sozial korporatiboko sistemetan.

Konpromiso horiek berekin dakartzate honako hauek:

- Enpresa-estrategia bat garatzea, taldearen helburuak betetzeko xedea duena, prozesuen funtzionamendu egokia bermatzen duena eta prozesu horietan planifikazio, garapen, ebaluazio eta etengabeko hobekuntzako sistematika ezartzen duena.
- Legedia eta EiTBk borondatez sinatutako konpromiso osagarriak betetzea.
- Hedabide garen heinean, kudeaketan, ingurumenean eta laneko segurtasunean jardunbide egokien inguruan kontzientziazteko eta horiek zabaltzeko ekimenak garatzea.
- Sozialki arduratsua den eran erabiltzea gizartean eta talde interesdunengan dugun eragina eta harreman-gaitasuna.
- EiTBn lan egiten dutenek, bere bezero eta hornitzaileak barne, EiTbrekin duten harremanean, jokabide arduratsu bat izan dezaten lortzea, erakundearen hartutako etika- eta jokaera-printzipioei dagokienez.
- Kudeaketa-sistema integratu bat garatzea, enpresak gauzatzen dituen jarduera guztietan prozesuak gauzatu eta etengabe hobetu, pertsonen osasuneko kalteak prebenitu, ingurumena babestu eta kutsadura prebenitzen dela bermatzeko.

**Jesús Elguezabal**  
Zuzendari kudeatzailea

**Andoni Aranburu**  
Estrategia eta Komunikazioko zuzendaria